

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko azaroaren 17a

\*



## Osasuna, 1920-1995

■ Osasuna futbol taldeak 75 urte bete ditu gaur. 1920. urteko azaroaren 17an, hain zuzen, Iruñeko Gaztelu plazako Kutz kafetegian elkartu ziren New Club eta Sportiva taldeetako ordezkariak eta Osasuna jaio zen. 75 urtetan Espainiako Ligako zenbait mailatan

jokatu dute gorritxoek eta zelaitik kanpo ere, bulegoetan, hamaika gora-behera gertatu dira. 75 urtetan denetarik bizi izan du Osasunak. Egungoa, agian, ez da 75. urteurrena ospatzeko garairik aproposena. Baina futboleant, bizitzan bezala, ezin da aukeratu. ■

## Parisek merezi du

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Korapilo bat egin zitzaidan ezterrari Saint Sabineko etxea uztean. Zoki agurtu berria neukala, nola izan zitekeen bestela.

Atzean geratu zen xumetasunean handi, ontasunean zabal, xamurtasunean maisu, oso gutxitan sortu ohi den gizakume libre bezain aberatsa. Libre aurkèretan eta zorioneko bideetan, aberatsa, gizakiak bakarrik izan beharko lukeen moduan, izatean.

Gure hasperenak luzeak izan behar ziren nahitanahiez. Hainbat mixeria daramazkigu arrastakan. Milaka zantalza eta akats eguneroko norabidean. Hain gutxirekin izan daiteke zoriontsu eta behin eta berriz exigentzia

amaigabeak egiten dizkiogu bizitzari, puxkak eta printzak han-hemendik jasotzeko.

Bihotz emankorretatik zenbat dagoen ikasteko! Horrenbeste aldiz eskean joan beharrean, garena eskaintzen ibiliko bagina! Geure buruarekin, bederen, ados jartzea lortuko bagenu!

Nafarroatik abiatuta ere, ez ginen gu Pariseren erlijioz aldatzera joan. Frantziako erresuma etzegen bere garai onenean eta agian etzen komeni oraintxe eskuratzea. Baina merezi, beti merezi du. Gainera hiria ez da lehengo bera. Kanpotik, agian bai. Eraikuntzak dotore eta ikusgarriak dira beti ere. Kafek antzinean bezala, erromanti-

koak. Hilerrak, Xabi, laguna ondoan, arima lasaitzeko modukoak. Biztanleak, ordea, inoiz baino atseginagoak egin zaizkit. Zokiren izarra lagungarri genuen oraingoan. Nolaz aldatuko zen bestela, jendearen jitea. Guk jasotako inpresioak zergatik izan behar zuen horren gustagarri? Desagertu dira jonio biziko atarizainak, galderak ez dira gaizki hartuak izaten dagoeneko. Inork etzizun gainbegirada maltzurrik bota. Egoera berria Zokiren lorpena da. Dударik ez da.

Parisek orain meza bat baino gehiago merezi du.

Hori bai, bertatik itzultzea mingarri da inoiz ez bezala. X

ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Gotorlekuan Iruñeko Artistista Gazteen XI. Lehiaketara aurkeztutako eskulturak, argazkiak eta margoak daude ikusgai hilaren 26ra arte.

**Zizur Nagusia:** Kultur etxean Miguel Angel Biota artistaren zuri-beltzeko marrazkiak ikus- teko aukera dago azaroaren 28ra arte. Erakusketa arratsalde 19.00etatik 20.30etara dago zabalik astegunetan eta larunbatetan. Jaiegunetan, berriz, 12.30etatik 14.00etara.

**Zangoza:** Kultur etxean zenbait argazkilari nafarren lanak ikusgai dira abenduaren 1a arte: Estrella Garcia, Javier Gamez, Jesus Sarries, Andoni Torres, Jose Angel Aierra, Javier Armendariz, Jose Javier Huarte, Jose Antonio Perez, Mikel Melero, Julian Hueso eta Jose Ramon Lizanzu.

**Barañain:** Kultur etxean txo- txongilo erakusketa antolatu dute. Abenduaren 1a bitartean izango da zabalik, 19.00etatik 21.00ak arte astegun nahiz larunbatetan eta 12.00etatik 14.00ak arte jaiegunetan.

KONTZERTUAK

**Elizondo:** Kasinoan De La Daurmek kontzertua emanen du gaur, gaueko 10.30etatik aurrera.

**Iruñea:** Anaitasuna kiroledegian Iron Maiden taldeak kontzertua eskainiko du bihar gaueko 9etik aurrera. Sarrerak 2.500 pezeta balio du.

ANTZERKIA

**Barasoain:** Udazkeneko Bira 95eko egitarauaren barnean Melody Sisters taldeak *Cuadros clínicos* obra antzeztuko du, gaueko 9etan Valdorba elkarteak.

**Igantzi:** Adinduen egoitzan Udazkeneko Bira 95eko egitarauaren barnean ere, Kollins Clown konpainiak *Bikingoak* antzezlana taularatuko du gaueko 9etan.

ZINEMA

**Tafalla:** *Una pandilla de pillos* filmea eskainiko dute bihar, arratsaldeko 6etan, eta etzi, 3.45etan, bertako bertako Kultur Patronatuak antolatu duen kultur egitarauaren barruan. Sarrerak 100 pezeta balioko du.

BERTSO SAIOAK

**Arbizu:** Xalxo txapelketako finalurreko saioa izanen da gaur. Arratsaldeko 8etatik aurrera, honako bertsolari gazte hauek ariko dira: Nerea Bruño, Oskar Estanga, Xabier Legarreta, Xabier Silveira, Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez, Erika Lagoma, Ekintza Landa, Julen Zelaieta, Noelia Linares, Eneritz Mitxelena eta Alaitz Rekondo.

**Erratzu:** Ostatuan herri afaria egingen da gaur gaueko 9.30etan. Bertan Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña izanen dira.

nafarkronika

Patxi Larrion

Garaian Garaikoa

**H**ogei urte igaro dira. Denbora hartan, gaurko egunez, elektrizitate etenaren zain jende ugari zen. Makinei esker bizirik mantentzen zen gorpuak utz zezakeen arrastoa anitzen kezka genuen. Gazte ginenendako astebeteko oporraldia.

Transizioa izenaz ezaguna den aroaren hasieran hausturaz mintzo zen. Hori gauzatzeko estrategiak ez ziren falta izan, egun ere ez gabiltza eskas alor horretan. Helburu politikoen eremuan horrelakorik bizi ote den eztabaidagarriagoa izan daiteke. Edonola ere, balantzea egiteko unean, amestu zena eta jasan behar izan zena ez datoz bat. Transizio hitza erabiltzea behatokia Madrilen jartzea dela diotenei arrazoi

osoa eman behar zaie. Alta, hogei urte hauetan bizi izan diren prozesuei muzin egiteak ez digu inolako mesederik egiten. Besterik ez bada, amestu zen hartatik zeinen urrun gauden ohar gaitzen. Lurraldean arteko harremanak ez dira behar bezalaxe azkartu. Eredu amankomun eza salatzea gabezia askoren estalgarri bihurtu zaigu. Halere, ezin ukatuzkoa da zenbait kontutan aldaketa gutxi somatu direla. Aurreko egunean Txantrean gertatutakoa lekuko. Legediaren eremuan aldiz, berebiziko berritasunak ezagutu dira. Kode penal berriak burgesia iraultzailearen garaiko sustraiak zituen kodea ordezkatu du. Garai berriei ezin hobeki egokitzen den arautegia. Zalantzarik balego, San Roquek argitu ditzala.



asteko pertsonaiak



Cristina Torrens  
Tenislaria

■ Cristina Torrens 21 urteko tenislari iruindarrak Espainiako tenis txapelketa irabazi zuen joan den igandean Alacanten, Gala Leon madrildarri 4-6, 6-3 eta 7-5 irabazi ondoren. Espainiako Txapelketaren 68. ekitaldi honetan Arantxa Sanchez Vicario eta Conchita Martinez jokalariek parte hartu ez badute ere, Torrensen ustez horrek ez dio garrantzirik kentzen lortutako tituluari. «Azken urteotan Arantxa eta Conchita ez dira lehiaketan aritu. Jakin badakigu etorriko balira irabaziko luketela, baina ni oso pozik nago». Cristina Torrensek zazpi urte zituela hartu zuen aurreneko aldiz erraketa eta duela sei hasi zen profesional moduan. Gaur egun Valentzian bizi eta entrenatzen da.



Gari  
Musikaria

■ Atzo arratsaldean aurkeztu zen Iruñean Garik bakarlarari moduan burutu duen estreinako diskoa. Desagertutako Hertzainak taldeko kantari ohiak hamar kanta bildu ditu Elkarrek kaleraturiko diskoan. Roc-karen bidean diharduela erakutsi du honetan ere, betiko egituraz eta akordeez antolatu baititu abesti berriak, nahiz eta salbuespenen bat egon. Joan den larunbatean Donostiako Victoria Eugenia antzokian estreinako kontzertua eman zuen. Emanaldira joan zen jende ugari, disko berriko abesti guztiak entzuteko aurreneko aukera izan zuten. Kontzertuan, Gariren doinuak ezin hobeki jantzi zituzten ondoan zituen instrumentariek. Bera kantari eta tarteka gitarraz lagunduta aritu zen.

ahaztu gabe!



ANTZERKIA

**Bederen 1** taldeak *El alquiler* antzezlana eskainiko du etzi Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 8etatik aurrera. Ramon Agirre aktoreak idatzirik komedia honek Donostia Hiria literatur saria jaso zuen iaz. *El alquiler* antzezlanean Ramon Agirrek berak pertsonaia nagusiaren rola —Teo gaztearena— betetzen du, Maribi Arrieta aktoreak Lolarena, Amaia Lizarralde Martaren rola eta Xabier Agirrek, azkenik, Juan pertsonaiaarena.

Bederen 1 konpainiak Ramon Barea aukeratu zuten *El alquiler* antzezlana zuzentzeko, gaurkotasan handiko komedia hau aurrera eramateko egokiena delakoan. Izan ere, Barea antzerki zuzendaritza lanetan ezezik, telebista zuzendaritza, gidogintza eta aktore lanetan ere aritu ohi da.

*El alquiler* antzezlanean errealitatea eta itxura, umorea, samurtasuna eta zinismoa nahasten dira. Ramon Agirrek ikusleak harrizten dituen amaiera itxuraz zorionsua eman dio obrari.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetallu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaintik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Iruñea

# Bihar hasiko da Gazte Astea

*Txantreako hainbat gazte taldek ekitaldi ugari antolatu dituzte hilaren 26ra bitartean*

**T**xantreako Jai Batordeak, Eguzki kolektiboak, San Cristobal eta Zitarri Gazte Taldeak, Txantreako Gazte Asanbladak, Jarraik eta Txantreako Euskara taldeak, Iruñeko Udalaren laguntzaz, Txantreako Gazte Astea antolatu dute. Bihar hasiko da eta hurrengo igandera bitartean, hilak 26, iraungo du.

Erredakzioa / Iruñea

BIHAR Itoitz Eguna ospatuko dute Txantrean, goizeko hamai-ketatik aurrera. Ordu horretan kalejira aterako da Euskara plakatik eta arratsaldeko ordu bi t'erdietan herri bazkaria egingen dute Auzotegin. Txartelak 1.000 pezetan daude salgai. Arratsalde partean, lauretan, antzerkia izanen da eta bost t'erdietan, berriz, Itoizko biztanleei omenaldia egingen diete Irubide parkean. Azkenik, arratsaldeko sei t'erdietan Iñaki Alfaro, Fermin Valencia, Otxote eta Koiuntura taldearekin jaialdia izanen da.

Igandean, bestalde, txangoa antolatu dute Gazte Astea prestatu duten taldeek. Baztandik Bidarrainoraino joango dira mendizaleak. Astelehenean jai hartu dute antolatzaileek, baina asteartean, arratsaldeko zortzietan, Xabier Gofii mendizale nafarrak inken erret bideari buruzko diapositiba emanaldia antolatu du. Bideko Amabirjina Institutuan izanen da.



Hamaika ekitaldi antolatu dituzte Txantreako gazteek.

Asteazkenean antzerkia izanen da berriro. Irubide taldeak 'Behi memoriok' lana antzeztuko du Irubideko ekitaldi aretoan arratsaldeko seietan. Zazpi t'erdietan, berriz, Minuesa (Madril) eta Iruñeko gaztetxeo kideak euren esperientziak mintzatuko dira egingen den mahainguruan. Ostegun arratsaldean alderdi politikoak izanen dira protagonista: PSN, HB, CDN, Jarrai, UPN, Bartzarre, Hautsi, Alderdi Karlista, IU, EA, PNV, Izar beltza, EPK eta TGA taldeetako ordezkariak soldadutza, kontzientzi eragozpen eta intsumisioari buruz ariko dira Axular Udal Ikastolan.

Ostiralean, arratsaldeko seietan, Maiatzaren 1 parkean gaztaintan jate intsumisioa antolatu dute Txantreako taldeek, sagardo eta guzti. Ordu erdi geroago intsumisioaren aldeko kalejira egingen dute. Larunbatean, berriz, goizeko hamarretan, *gynkana* prestatu dute. Parte hartu nahi duenak irteeran eman behar du izena. Antolatzaileek erran dutenez, kutsatzen ez duen edozein garraiobide erabil daiteke aurretik zehaztutako ibilbidea egiteko. Goizean Mugazuri kalean, Gazte Asteko murala egingen ariko dira Txantrea eta inguruko gazteak. Eguerdi partean txistorra jatea

eginen dute eta ordu bietan herri bazkaria Auzotegi Kultur Etxean. Arratsaldean herri kirolak ikusi ahal izanen dira Euskara plazan.

Datorren igandean, azkenik, arratsaldeko seietan, *Priscila* filmea emango dute San Cristobal Gazte Taldearen egoitzan. Amaieran mahaingurua egingen dute EHGAM eta Lumatza taldeetako ordezkariekin.

Aste osoan zehar, halaber, Txorimalo elkartearen ekologia eta mendiari buruzko argazki erakusketa izanen da ikusgai. Ikastaro hauetan parte hartzeko aukera ere izanen du nahi duenak. X

Burlata

## Nafarroako Kantu Txapelketa

■ Lehenengo kanporaketa saioa datorren larunbatean egingo da, Burlatako Elizgibela kiroldegian

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Euskal Kantu Txapelketa, urtero bezala, laster jarriko da martxan aurten ere. Nafarroa osoko kantari gazteek euren gaitasun eta trebezia erakusteko parada izanen dute lehiaketan zehar egingen diren saioetan. Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako lehen kanporaketa saioa datorren larunbatean, hilaren 25ean alegia, izanen da Burlatan. Bigarrena, berriz, Leitzan, abenduaren 2an. Burlatako saioan, Lizarra, Tafalla, Iruñerria, Sakana, Aezkoa eta Larraungo haur kantariak ariko dira eta Leitzakoan, aldiz, Leitzaldea, Bortziri, Malerreka eta Baztangoak. Epaimahaiak aukeratutako kantariak Kantu Txapelketako azken saioan parte hartu ahal izanen dute.

Burlatako euskal kantu saioa herriko Elizgibela kiroldegian



izanen da, arratsaldeko bostetik aurrera. Hamalau talde, bikote eta bakarlarik ariko dira Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako lehen kanporaketa honetan: Altsasuko Itziar eta Erkuden bikotea, Burlatako Urtzi taldea, Burlatako Imanol Erkizia eta As-

sona Arrasate bikotea, Burlatako Mikel Ordoki bakarlarik, Etxarri-Aranazko Euskaldunak taldea, Iruñeko Kontrapas taldea, Iruñeko San Fermin taldea, Tafallako Patxi Azkarate bakarlarik, Aezkoako Karmele Galartza, Lizarrako Lizarra taldea, Larraun-

go Aitor eta Gorka eta Mainer eta Nerea bikoteak eta Larraungo Alprojak eta Larraun taldeak.

Leitzako saioa abenduaren 2an izanen da, erran bezala, zinematokian eta arratsaldeko bostetik aurrera, Burlatako bezala. Bertan hemezortzi talde, bikote eta bakarlarik ariko dira: Doneztebe Kurkuxa eta Doneztebe taldea, Berako Ainhoa Agirre eta Saioa Ataun bikotea, Berako Ainhoa Agirre bakarlarik, Lesakako Alaitz Rekondo eta Erika Lagoma bikotea, Igantziko Unanu taldea, Sunbillako Juana eta Miren bikotea, Amairuko Ausartak taldea, Elizondoko Maribel eta Bihotz eta Mainer Sobrino eta Miren Urtizbera bikoteak, Goizuetako Dani eta Ainara Narbarte bikotea, Goizuetako Irune Zabala bakarlarik, Leitzako Txalaparta taldea, Leitzako Ainara de Miguel bakarlarik eta Leitzako Tribua eta Urkaitz taldeak. X



Kaleko senide eta lagunak oso urrun sentitzen genituela eta ari ginela, «Beldurra ematen dit zeinen erraz ahazten ditudan maite ditudanak» esaldi biribila bota zuen. «Kartzela eskola da» esanik primeran definitu zituen funtzionarioen eta presoaren arteko harremanak...

Konfuzio —David Ardanaz, kalekoentzat— espetxetik atera eta Agoitzera itzuliko da heldu den ostiralean. Jakin badakit, Konfuzio, hamabost egun barru jada ez zaitudala gogoratuko, nik ere azkar ahanzten ditut eta maitatzen ditudanak. Bien bitartean, alta, zure falta sentituko dut, sentituko dudanez. Zorte on urtegiro urbazterreko izozki postuarekin.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

### Agur, Konfuzio, agur

LEHENGO egunean Konfuzioz eta biok siestaren gibelatik ekonomatoan kafesne bana eskuratu genuen, eta patioa porlanezko banku luzean eseri ginen, udazkeneko eguzki epela gozatzeko asmoz. Horretan buru-belarri ari ginela, bi funtzionario gure aitzinean patioan goiti-beheiti paseatzen hasi ziren. Joanetorri horietariko batean bat besteari «Mira Ruben...» eta ez dakit zer gehiago esaten ziola entzun genuen.

Patioak 40 pausoko luzera dauka, eta 20ko zabalera. Gauzak horrela, bertan lan nekeza da infinitorantz begiratzea, begiek berehala egingen baitute harresi eta alanbradekin topo. Halere, funtzionarioen solasaldia entzun genuelarik Konfuzioz infinitorantz egin zuen so. Horren ostean, infinitorantz begiratzen duen bakoitzean gertatzen den bezala, jakinduriak beteriko esaldi sakona bota zuen: «Harritzekoa da funtzionarioek Funtzionario ezizik Ruben bezalako izen berezi arunta ere edukitzea». Ez zait bururatzen bokien izaera grisa definitzeko modu aproposagorik.

Kartzelan sartu eta Konfuzio ezagutu nuenetik, bere ahotik gisa horretako hamaika esaldu entzun ditut. Kartzelaren gogortasuna mintzagai genuela, «Espetxea zure buruan dago» esanik bikain laburbildu zuen afera.

Osasunaren atzoko  
eta gaurko historia



34-35 denboraldiko jokalariai ageri dira goiko argazkian, horien artean Mugiro, Urrizalgi, Ilundain eta Catachu ezagunak.

## Gaur 75 urte

1920. urteko azaroaren 17an sortu zen Gaztelu Plazako Kutz kafetegian Osasuna futbol taldea

**G**aur 75 urte, Sportiva eta New Club taldeak elkartu eta talde berria sortu zen Iruñeko Gaztelu plazako Kutz kafetegian. Oso-tara, talde bakoitzeko hogeitaz bat ordezkari bildu zen eta Benjamin Adoainek egindako proposamena bozkatu ondoren, Osasuna izenarekin bataiatu zuten talde jaioberria.

Edurne Elizondo / Iruñea

75 URTEAN denetarik bizi izan du Osasunak zelaian eta baita bertatik kanpo ere. Batzuk gozoak eta beste batzuk garratzak, guztiak bi orrialdetan, edonola, zenbaezinak. Egungoa, agian, ez da Osasunak bere 75. urteurrena ospatzeko nahiko lukeen garairik hoberena, baina futboleko, bizitzan bezala, ezin da aukeratu. Begirada atzera bota eta Osasunaz mintzatu gara Jose Manuel Etxeberria gorritxo ohiarekin, Gregorio Gonzalez —Don Goyo— irratiko berriketariarekin eta Angel Bizkai Osasunako geroarekin.

Jose Manuel Etxeberria goizuetarrak 1986. urtean utzi zuen Osasuna gorritxoaren artean 22 urte eman ondoren. Hemeretzi urterekin Osasuna Promesasen hasi zen eta urtebete geroago lehen taldearekin debutatu zuen Bigarren Mailan. Ondoan, Osa-



Ignacio Eizagirre jokalaria eta entrenatzailea gorritxoaren atea zainduz Barcelonako Boch futbolariaren aurrean.

sunako historikoak izan zituen Etxeberriak: Irigibel, Ripodas, Clemente, Martin, Iriarte eta beste hainbat.

Hauekin guztiekin batera, Osasunak bizi izan duen garairik onena bizi izan du Jose Manuel Etxeberriak ere. Goizuetakoak, lankide zituen gainontzeko gorritxo eta nafar guztiak bezala, 1979-1980 denboraldian Lehen Mailara igo zireneko garaia gogoratzen du bereziki. «UEFA ere egon nintzen». 1986-1987 denboraldia izan zen Osasuna lehen aldiz Europara ailegatu zen hura. Denboraldi berean zelaia agur

**Jose Manuel Etxeberria:**  
«Gure garaian urte asko ematen genituen taldean eta guztiok ginen etxekoak. Aldaketa gehiegi egin dituzte eta berrikuntzak ez dira beti onak izaten. Osasunaren harrobian ere jokalaria apartak daude»

erran zion Jose Manuel Etxeberriak. Osasunatik, ordea, ez du oraindik alde egin. Gerente eta Zuzendaritzako kide ere izan ondoren, jubentzen Ohorezko Maila zuzentzen du gaur egun Taxoaren.

«Gauza asko aldatu da Osasunak» azpimarratzen du Etxeberriak. Horien artean giroa nabarmendu nahi izan du: «Gure garaian urte asko ematen genituen taldean eta guztiok ginen etxekoak. Orain, ordea, urte batetik bestera jokalaria asko joan edo etortzen da». Zaletuak ere ezberdinak dira bere iritziz: «Ha-

mazapi urte geroago 1979-80 denboraldian Lehen Mailara igo ginenean zoragarria izan zen. Partidua hasi baino bi edo hiru ordu lehenago atean ziren zaletu guztiak zain». Lehen Mailan jokatuz zuten lehen denboraldia oso ona izan bazen ere, aurrekoa, bigarren mailan eman zutena gogoratzen du Etxeberriak bereziki: «Aparta izan zen. Zaletuak ere pozik ziren. Lehen Mailara igo aurretik 7.000 bazkide inguru genituen eta, igo bezain pronto, 10.000 bazkide berri eman zuten izena». Garai txarrak ere eza-gutu ditu Goizuetako jokalariai: «1986. urteko azaroan Ivan Brzić bota zuten hiru urtez gure entrenatzaile izan ondoren. Berarekin iritsi ginen Europara ere. Urte berean, bera bota baino egun bat lehenago utzi nuen nik taldea».

Azken bi urteotan Osasunak bizi izan duen beherakadaz ere mintzatu da Etxeberria: «Jendea aspertu egin da». Etxeberriak, hala ere, Osasuna berriro Lehen Mailan laster ikusteko esperantzaz badu. «Aldaketa gehiegi egin da eta berrikuntzak ez dira beti onak». Etxeberriak, garai zaharrak gogoratu, harrobiaren garrantzia azpimarratu du. Berak zuzentzen duen taldean, hain zuzen, bi edo hiru urte barru «oso jokalaria garrantzitsuak egonen dira».

**Pepe Alzateren indioak** • Gregorio Gonzalez, Don Goyo, orain dela 50 urte inguru hasi zen irrati munduan lanean Radio Requeten. Hasieratik, Osasunari biziki

Osasunaren atzoko  
eta gaurko historia

Eskoziako Glasgow Rangers famatua UEFA txapelketatik kanpo utzi zuen talde gorritxoaren hasierako hamaikakoa. Patxi Irigibelek (kaleko arroparekin argazkian) omenaldia jaso zuen partidu horretan.

loturik egon da bere ibilbidea eta egun ere halaxe da. Astero eta urtetik urtera, gorritxoek jokaldiak aireratu ditu irratiko uhinen bidez.

Etxeberrriak bezala, futbolearen gauza asko aldatu direla uste du Don Goyok ere, «giroa eta jokoa ezberdinak dira» azpimarratu du. 80ko hamarkadako taldea da irratilariak oraindik buruan duena, «Pepe Alzateren indioak». «Orain Osasunako entrenatzailea den Paquitok asmatu zuen izen hori Santanderko Racing taldean zegoenean. Bertara joan eta Osasunak irabazi zuen». Pepe Alzatek 1979. urtean hartu zuen Osasunako gidaritza eta Valenciaren aurka, urte horretako irailaren 2an jokatu zuen lehen partidua. «Alzatek joko erasotzailea egiten zuen, ikusgarria, ederra» esan digu Don Goyok. Alzateren indioak Lekunberri, Basauri, Etxeberria, Irigibel, Baiona, Iriarte, Martin, Ripodas eta Makua izan ziren batez ere. «Nafarrak guztiak». Urtetan zehar ahaztu badituzte ere, Paquitok harrobiko jokalariek berreskuratu izana biziki eskertzen du Don Goyok. «Ezkerro zoragarria da, Aitor ere defentsa aparta. Jubeniletan eta Promesas taldean ere jokalaririk onak daude». Osasunak 1982. urtean inauguratu zuen Taxoako futbol eskola eta bertan 300 haur inguru daude egun, 12 eta 19 urte bitartekoak.

**Osasunaren gainbehera eta krisia** • Angel Bizkai Osasunako gerenteak ere taldeak gaur beteko dituen 75 urte hauetan bizi izandakoak laburbildu ditu. Taldeari dagokionez, 1990-1991 denboraldia da bere ustez onena: «UEFAra joan ginen eta Ligan ere inoiz lortu dugun posturik onena lortu genuen, laugarrena».

Bizkairekin, hala ere, zelaitik kanpoko arazo gertakizunetz mintzatu gara. 1993-1994. ur-



Etxeberria, Irigibel eta Martin jokalariek osatu dute Osasunaren historiako aurrealde onena orain arte.

tean Osasuna Bigarren Mailara jaitsi zenetik, izan ere, krisi egoera izan da nagusi taldean, bai zelaian baita bulegoetan ere. 1971-72 denboraldian Lehendakari zara ailegatu zen Fermin Ezkurrak, 1994. urteko martxoan dimisioa aurkeztu zuen. Aurreko urteko bukaeran ere, Pedro Mari Zabalza kargutik kendu zuen taldeak. 1986-1987 denboraldian hasi zen Zabalza gorritxoak entrenatzen.

Orduan abiatu zen krisia ez da oraindik konpondu eta Zuzen-

daritzan dagoen egoera ez da hobetu. Ezkurraren lekua Javier Garrok bete zuen, baina hil honen 6an, boterea Zuzendaritzako kide diren Pedro Senosiain eta Juan Luis Irigarainen esku utzi zuen. «Bere lanak denbora antz kentzen diolako hartu du Garrok erabaki hori. Halakorik gertatzen den lehen aldia da, baina ez da egoera arraroa. Bera da lehendakari, nahiz eta bere boterea beste batzuen esku utzi». Orain dela lau bat hilabete hainbatek Javier Garroren dimisioa eskatu zutela gogoratu du Etxeberriak ordea, eta bere ustez egin berri duena, «erdibideko konponbidea» baino ez da. Don Goyok ere zehazki azaldu digu egoera honi buruz duen iritzia: «Tamalgarria».

## Hamaika gora-behera

Osasuna taldeak azken 75 urteotan egin duen ibilbidea hitz gutxitan laburtzea zaila da, ezinezkoa agian, anitz eta anitz izan baitira gorritxoaren historia idatzi duten gertakizunak. Badira ordea, zaletuaren gogoan bereziki bizirik dirauten jokalaririk, norgehiagoka, data edo entrentzaileak. Horieta batzuk gogoratuko ditugu.

✱ **1920-XI-17:** Kutz kafean —Gazteluko plazan— Osasuna taldea sortu zen, Sportiva eta New Club taldeak elkartu ondoren. Benjamin Adoainek proposatu zuen izena, eta elkartu ziren 50 bat bazkidek onartu zuten. Joaquin Rasero aukeratu zuten lehendakari eta talde titularra honako hau zen: Rasero; Aizpun, Nestor; Azagra, Lusarreta, Meaurio; Gorraiz, Etxarren, Moreno, idoate eta Gortari.

✱ **1922-V-21:** Donibane futbol zelaiaren irekitzea. Getxoko Arenas taldearen aurka izan zen estreinako partidua, eta Joaquin Rasero lehendakaria bera izen zen norgehiagokan epailea. Juanito Urkizak —ondoren Athleticen entrenatzailea izango zena— debuta egin zuen gorritxoekin.

✱ **1928-II-17:** Osasunak debuta egin zuen Espainiako Ligan, hirugarren mailan. Real Zaragozaren aurrean jokatu zuen lehen partidua, eta 1-0 galdu zuten gorritxoek, honako hamaikakoarekin: Oses, Apat, Urdirez I, Copegi, Sanchez, Urdirez II, Sagues, Sebe Goiburu, Urrizaldui, Jesus Goiburu eta Mugiro.

✱ **1934-1935eko denboraldia:** Lehen mailan lehendabiziko aldiz, Miguel Ofizialdegi zen orduan lehendakaria, baina berehala etorri zen gerra zibila, eta ondotik bigarren mailara joan zen Osasuna, Madrilgo Atletico Aviacionekin 1-3 galdu ondoren.

✱ **1953-V-3:** Osasuna berriro lehen mailara, Tomas Arnanz entrenatzailea zela. España Industrial taldearen aurka jokatu zuten gorritxoek, eta 2-3 galduta ere, ohorezko mailara igo ziren. Urtebete baino ez zuen han iraun, hurrengo denboraldia bigarren mailara jaitsi zelako berriro ere.

✱ **1957-IX-9:** Osasunak, berriro lehen mailan, parte hartu zuen Zaragozako Romareda futbol zelaiaren inaugurazio ekitaldian, eta 4-3 galdu zuten gorritxoek. Hala ere, hori izan zen Osasunak urte askotan zehar lortuko zuen klasingatik onena: bosgarrenak izan ziren.

✱ **1965-IV-9:** Donibaneko zelaia saltzea erabaki zen, 40 milioi pezetaren truke. Urte hartako taldean zeuden, besteak beste, Javier Ederria, Pedro Zabalza eta Luis Astrain jokalaririk apartak.

✱ **1967-1968ko denboraldia:** Sadarreko futbol zelaiaren inaugurazioa. Hiru partidu jokatu ziren horretarako, Setubal eta Zaragoza taldeekin. Ignacio Zoko eta Felix Ruiz Real Madriden zeuden dagoeneko.

✱ **1971-XI-26:** Ezkurra lehendakaria. Emilio Garcia Ganuzak behin dimisioa aurkeztuta —udalarekiko arazo ekonomikoak zirela-eta—, bere lehen junta osatu zuen. 24 urte egon zen postuan, eta berarekin lortu zuen taldeak oreka, arlo guztietan. Dugarik gabe, talde gorritxoak izan duen pertsonarik garrantzitsuenetakoa.

✱ **1980-VI-1:** berriro lehen mailara, hamazazpi urte eta gero. Murtzian izan zen, eta haraino joan ziren bost mila nafar. Osasunak irabazi behar zuen bertan, eta Castellonek galdu. Hala gertatu zen, eta Ranzek sartu zuen gola. Iruñean izugarriko harrera egin zitzaion taldeari.

✱ **1984-1985eko denboraldia:** Denboraldi honetako azken jardunaldian Realaren aurkako partidua irabazi zuen Osasunak eta honela UEFArekin jokatu ahal izateko txartela eskuratu zuen lehen aldiz. Ivan Brzic zen entrenatzailea.

✱ **1986-1987ko denboraldia:** Pedro Mari Zabalza Osasunako entrenatzaile izendatu zuten. Osasunak jokalaririk izan zen Zabalza, entrenatzaile izan aurretik. 90-91 denboraldian Osasuna UEFArekin sailkatu zen berriro Zabalzarekin eta Espainiako Ligan posturik onena lortu zuen: laugarren.

✱ **1993-1994ko denboraldia:** Osasuna automatikoki jaitsi zen bigarren mailara. Zuzendaritzak 1993. urteko abenduan kargutik kendu zuen Zabalza eta bere ordez Enrique Martin Monreal jarri. 1994. urteko martxoan, berriz, Fermin Ezkurrak dimisioa aurkeztu zuen. Bere lekua Javier Garro egungo lehendakariak bete zuen.

✱ **1994-1995eko denboraldia:** Txetxu Rojo bizkaitarra zen Osasunako entrenatzaile berria. Bere asmoa Osasuna lehen mailara itzultzea zen baina ez zuen lortu. 1995. urte hasieran Manolo Los Arcos jarri zuen Zuzendaritzak Rorejoren ordez entrenatzaile, denboraldia amaitu arte. Abian den 1995-1996ko denboraldi honetan Paquitok hartu du Osasuna lehen mailara igotzeko ardura. ✱

**Gregorio Gonzalez:** «Pepe Alzate entrenatzaileak erasoko jokoa egiten zuen, ikusgarria, ederra benetan»

## Xanti Begiristain

## Doterik ez; beraz, heriotza

■ Aspalditik entzuten ari gara emakumezkoak kexatzen direla, ez daudela konforme, eskubide batzuk aldarrikatzen dituztela, errebelatzen direla, berdintasuna eskatzen dutela gizonetik, eta abar. Eta bai, ziur nago arrazoirik ez dutela falta; izan ere, hasten baldin bagara aipatzen emakume gehienek eskatzen dituzten gauzak gizarte hau minimoki orekatzeko, ikusiko dugu aldarrikapen sail hori ez dela batere txikia. Hona hemen, besteak beste, aipa litezkeen kontu batzuk: Nork ez ote ditu behin ere gizon eta emakumezkoak soldaten arteko ezberdintasunei buruz hitz egiten entzun, edo matxismoa eta gizonkeriak direla-eta, edota heziketan, jostailuetan, hizkeran, zine-literaturan eta abarretan dagoen sexismoaz? Nor ausartuko ote da esatera gaur egungo emakume askok jada ez duela pairatzen tratatu txarrik gizonengandik, edota bortxaketarik, gizonetik menpekotasunik eta abar? Edo nork ez daki emakumezkoek zama askoz ere handiagoa daramatela etxeko lanekin, haurrekin eta abar, nahiz eta

neskatila jaito berriei klitoris kentzea arrazona-mendu txoro bezain ergelak eginez; eta legezkoa ez balitz, berdintsu emango lidake; kontua da, mundu honetan, egunero praktikatzen dela astakeria hori kopuru ikaragarri handitan, eta azken finean zertarako? Ba, oso erraza da! «Ar jaunskilak» hobekiago menperatu ahal izateko «bere emetxo zerbitzariak». Munduko beste nonbait ere jakingo duzue naski, ohitura dela, emakumezkoek, lepoan erantzun handi batzuk jartzea. Horrela lortzen dute emakume horien lepoa izugarri luzea izatea; oker ez banago, «emakume jirafak» deritzaie. Eta hori guztia zertarako? Ba, begira ezazue, emakumezkoek gizonzkoek iruzur egiten baldin badiete sexu kontuetan, eta gizonzko horiek gertatutakoaren berri baldin badute, orduan lepoko erantzunak kentzen dizkiete. Lepoak horren luzeak izanik, emakumeak ez dira gai buruari tente eusteko. Horra hor hainbat gizonen beste praktika matxista lotsagarri bat.

Baina oraindik badaude gehiago eta ziur aski



kanpoan lan egin eta gizonzko bikotekide batzuk moderno eta zuzenxeagoak izan? Eta nori ez zaizkio iritsi bere belarrietaraino, emakume asko, bere borondatearen aurka, gizonaren zerbitzari, morroi eta menpeko delako zurrumurruak? Eta bukatzeko, nork ez ote ditu aditu azken bolada honetan Felez eta beste jaun batzuen (besterik ez esateagatik) aldrebeskeriak?

Beste deus baino lehenago adierazi nahi dut ni gutxiti fisikoa eta euskalduna izanik, oso ongi ulertzen ditudala zapalduak eta zokoratuak diren emakumezkoak, ni bezalako pertsona «ezberdinoi» ere makina bat aldiz tokatzen baitzaigu aldarrikatu eta borrokatu behar izatea.

Baina gizon ziztrinen maltzurkeria ez da hor bukatzen, ez. Ezta pentsatu ere! Kasu askotan mila aldiz ere urrutirago joaten da. Gogora dezagun, esate baterako, gaur egun, bi milagarren urtetik urrats batera garenan, munduko herrialde eta eskualde askotan oraindik legezkoa dela

hobeak. Kasu hauetan hiltzeraino iristen da, heriotzaraino alegia. Zoritxarrez, sarriegitan entzuten dugu komunikabideetan «halako gizonak bere buruaz beste egin duela», baina lehenago, jakina, «bere jabegoko gauzakin» nahi izan duena egin du, hau da, lehenik eta behin «bere» bikotekidea eta seme-alabak hil egin ditu. Zergatik? Kontxo, ba, bereak zirelako!

Eta honi guztiari buruz entzun dudana azken aberrazioa, duela egun gutxi aditutakoa izan da, alegia, Txinan, gaizki ez badut gogoratzen, 1994an lau bat mila emakume hil egin da doterik ez izateagatik, edota oso txikia zelako. Nola? Ba, horrelako kasuetan, gizon bikotekideak, edo honen familiakoek erabakitzen zuten hil behar zituztela «bekatu» hori egiteagatik, eta kasu askotan gainera, sukaldeko gasa irekiz eta su emanez, jendeak istripua izan dela pentsa dezan.

Bai, gizonzkoek oraindik ere badugu zer hobetua. ■

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Isla aitaren euskal erakarria

■ Jose Francisco Isla Rojo Villadanes deritzan Leongo herrixkan sortu zen 1703. urteko epail batek 24 egun zituela. Espainiako erdal literaturak goraiatu egi ez duen satiraren maisu zuspildu honek etorki goien hantua zuen sendi baten altzoan garatu zituen bizi hasmenta urriak, alta arras gazte ingura urrendu baitzen berebiziko lagundiarren abaroan, askazi berriez egarriaren asegarrak. Orduko lekaikideek ibili ildo berberari atxekiaz, haztetxerik haztetxeko bidazti llaburran bidaide izan zuen euskal anai franko, moldeetara eraman zien lehendabiziko lanean agerian laga bezala, hau da, *La juventud triunfante o descripción de la máscara o mojiganga que hicieron los jóvenes teólogos en la ciudad de Salamanca con motivo de la canonización de San Luis Gonzaga y San Estanislao de Koska 1727*. urteko idazkia alegia: *Por la tarde se dispusieron los estudiantes navarros para salir a ejecutar la función. Para eso trazaron unidos con los estudiantes vizcainos una máscara o mojiganga numerosa y festiva. En las primeras gradas iban muy de galanes ocho estudiantes que habían de danzar en el tablado de la plaza. Aquí ejecutaron una de las más primorosas danzas de la moda, al son de violines».*

1744.ean eta azkenean, Euskal Herriratu zen, Iruñera hain zuzen. Ospea gizonaren aitzinetik iritsia bazen nonbait, eta Fernando VI.aren errege izendatzea zela eta ospaturiko besten berri eman behar zuen idazkia egiteko eskaera Islari luzatzea baino egokiagorik ezizaien agintari nafar festa betzalei otu. Leongoak ézet, baina nagusiek zukuruzturik edo, hogeitabat egun soilik erabili zituen *El triunfo del amor y de la lealtad: día grande de Navarra* izenburuko zortzi kapitulotako liburua izkiriatzeko. Hainbatek berriz ironia puntu bat atzeman zioten Isla aitak egindakoari, eta eraso zaparrada bortitzak jasan behar izan zituen, esaterako Valencian ageri *Colirio para los cortos de vista, diversión para los discretos y explicación del cajón de sastre de la isla transformando para los tontos* izenburukoan arnegukari botatako bezalakoak: *Loco, tonto, padre ruin y bribón, bufón, mal religioso, padre fandango y Herodes cruel*. Erausía ostean, Donostia aukeratu zuen helmuga, bereganatu halako gogo piura alde edo moldez haikatzeko. Etzen gehixegi hastandu beraz apezpikutegi berberan baitzerraien.

Donostian Larramendiren Hernaniko ahaideekin egoteko aukera izan zuen, eta harrez geroztik posta truke zabala izan zuen Andoaingoaren lehengusina zen Manuela Larramendirekin. Kultura handiko emakume irakurri honek gutun batean honela zioen Isla aitaz: *«Ez bestiac bezelacoa, guizon prestua, eta aditua, eta ona chit»*. Iruñera joan bezain fite euskara ikasten hasi zen, eta bere eskutitzetan ikasitako guzia erabilizten saiatzen zen: *«Atsoa nerea, gorantz eta agur. Or konpon. Ondo bizi»*. Manuelak berak zuen biloba bati, M<sup>a</sup> Josefa Kamino neska mariapain pertxenta astofaldunari honelaxe mintzo zitzaion lasai aski: *«Agur nere mattecho cacamocordo ederra»*.

Bilboko Gortazar sendi ahaldunarekin ere bere harremanak izan zituen, Jose Domingo Gortazar Arandia eta Josefa Teresa Montiano Arriaga senar-emazteekin. Jose Domingoren aita Peruko korregidorea zen, eta Josefarena Manuel Montiano Sopolana, Panama eta Floridako gobernadore hondarribitarra. Hakekin euskara maratzago bat erabili zuen: *«Pepacho gipucha nerea, berea biotzetic, zargaistoa, Gortazar Jauna bere licenciarequin, bere servizari beti cariñoarequin, agur picaracho beroren zarracho»*. Noiz edo noiz Larramendiren hiztegiko hitzen bat ere esleitu zuen, esate baterako *comonioac* eskuminak orde. Azken buruan, Larramendiren gerizapean hazi zuen bere euskaltzaletasuna, eta haren hiztegi hirukoitza aldamenan izan omen zuen beti. Txoko honetatik, gure tairik gabeko txalorik atsanki baina filusena Isla aitari, tailis bakarra XVIII. mendeko erdal oihan ahiezinean, Uharte soila argien mendeko espainiar zulepaki idoitsua. ■



Taldekako euskal ligako lehenengo jardunaldiko partida, 1995eko azaroaren 5ean jokatua.

**Ruperto Olaso** (Hondarribiko Marfaxka) — **Pedro Viñal** (Iruñeko Anaitasuna) 2.240 ELOkoa.

1.e4,c6; 2.d4,d5; 3.Zd2,g6; 4.gz-f3,Ag5; 5.c3,e6. Partida hasi eta berehalaxe bota egin dute beltzek. Peoiaren mugimendu horrekin alfilar irtenbideak kendu dizkiote. Ikus koadroa.

6.Db3,Db6. 'Af3' egin izan balute, 'Db7' zetorkeen, eta azken batean etekina zurientzat.

7.Ze5,Db3; 8.b3,Ah5; 9.g4,f6; 10.Zc6.

'Ag4' jokaldiak 'Ga7' du erantzuna.

10.....Zc6; 11.h5,e4; 12.Ze4,g5.

Beltzek onartu dute peoi bat gutxiago izatea. Bestela, gazteluko zutabe horretan etorkizunik ez zen. Horrela, peoi zuriak lotu gabe daude, alde batean bederen.

13.b4,Ef7; 14.b5,Zd8; 15.Ag2,Zh6; 16.h4,Zf5.


Aukera gehiago zuen 'g4' jokaldiak. Beltzek lekuz kanpo dirudite.

17.g5,g5; 18.Zg5 xa,Ef6; 19.Af4,Gg8; 20.Zh7 xa.

Beste opari bat.

20....., Eg7; 21.Zf8, Ef8; 22.Ef1, Eg7; 23.Ae4, Eh7; 24.Gg1, Gf8; 25.Ee2, Gf7; 26.Ae5, Eh6; 27.Gg8.

Beltzek amore eman zuten, 'a1-ean' dagoen gaztelua jokoan sartzeko prest dagoelako. Peoi gehiegi eman zuten.



# Jimeno Jurioren omenaldia

Hilaren 25ean izanen da Nafarroako hainbat elkartek antolatuta Jus la Rotxa kultur etxean

**N**afarroako hainbat elkartek —AEK, IKA, Geronimo de Uztariz Institutua, Gizarte Ikasketarako Zentroa (GITE-IPES), Iparla, Axular, Tuterako Merinaldea eta Estellerria Ikasketa Zentroak, Beterri, Altaffaylla, Txalaparta argitaletxea, Muga, Ortzadar eta Duguna— Jose Maria Jimeno Juriori omenaldia egingen diote hilaren 25ean. Artaxonakoak pozik hartu du berria.


Edurne Elizondo / Iruñea

JIMENO JURIO historialari, hedatzaile eta publizistaren lana gogoratuko dute hainbat ikerlek Jus la Rotxa kultur etxean, hilaren 25ean eguerdian, nafarrak ongi merezitako omenaldian. Toponimiaren alorrean omenaldia egin duen lanaren berri Patxi Salaberri emanen du eta etnografiari dagokionez, Jose Maria Sartrategi mintzatuko da gai honetaz. Historiaren eremuan ere lan aipagarria egin du Jimeno Juriok eta, horretaz, Emilio Majuelo historialariak hitz egingen du. Arratsaldeko ordu bietan, berriz, herri bazkaria izanen da. Sarreak dagoeneko salgai dira Xalbador eta Auzolan liburudendetan eta GITEen, 2.500 pezetan.

Historialari, hedatzaile, ikerle eta publizista. Jimeno Jurio 1927. urtean jaio zen Artaxonan. «Herrikoa eta herriarena». Halaxe azaldu dute omenaldia egingen diotenen historialari nafarraren nortasuna, «herriko gauzak ezagutzen eta ezagutarazten ahalegindu baita beti».

Jimeno Jurioren ikerketek hainbat alor eta gaik utzitako aztarna jarraitu dute eta zaila da, beraz, bakar batean sailkatzea. Etnografia, toponimia, hizkuntzalaritza, hizkuntzaren soziolinguistika, historia, guztiak jorratu ditu egun gutxi barru omenduko duten ikerlek. Urteetan zehar egindako lana, gainera, hamaika liburu eta aldizkaritako artikuluk jaso dute betiko. Liburuaren artean, *Documentos medievales artajoneses* (1968), *¿Dónde fue la batalla de Roncesvalles?* (1974), Vicente Huizi eta Mikel Soraurenekin batera egindako *Historia de Navarra* (1980) eta aurki Txalapartak berrargitaratuko duen *Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución* (1974) aipa daitezke. Iruñerriko eta Iruñeko toponimiari buruzko lanak ere Jimeno Jurioren lanaren adierazgarri dira. Hauek, Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* argitalpenean ikusi dute argia.

Aldizkarietako dagokionez, *Príncipe de Viana, Fontes Linguae Vasconum, Cuadernos de Etonología y Etnografía de Navarra, Euskera* eta *Dantzariak* izan dira Jimeno Jurioren artikulua jaso dituzten batzuk. *Príncipe de Viana* aldizkarian, hain zuzen, Jimeno Ju-



Hilaren 25ean omenaldia egingo diote Jimeno Juriori.

JOXE LACALLE

## «Lagunekin elkartzeak poztu egiten nau»

HISTORIAGILEAK urteetan zehar egin duen ikerketa lanak hainbat elkarte eta erakundeen magalera hurbildu du nafarra. Eusko Ikaskuntzan, adibidez, lehendakariorde izan zen. Geronimo de Uztariz eta Medikuntza Historiaren Euskal Elkarteak ere bazkide sortzaileen artean dute Jimeno Jurio eta Euskaltzaindiak, halaber, ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

Bestalde, 1990. urtetik 1994ra Nafarroako Gobernuak herrialde honetako toponimia jasotzeko osatu

zuen lan taldeko zuzendaria izan zen historialari ezaguna.

Bere lankide eta lagunek egingen dioten omenaldiaren berri pozik hartu du Artaxonakoak: «Aspaldi elkar ikusi ez duen lagun taldea mahai baten inguruan berriro elkartzeko aukera paregabea iruditzen zait eta denok lanean jarraitzeko beste bultzada bat izatea espero dut», adierazi dio egunkari honi.

Neurri batean omenaldiaren aitzakia izan den eta Txalapartak egingen duen *Historia*

de Pamplona liburuaren berrargitalpenari buruz ere mintzatu zaigu Jimeno Jurio. Argitalpen berri honetan, hain zuzen, Iruñean historiaren zehar hizkuntzaren egoera zein izan den aztertze-ko asmoz, hiru kapitulu berri gehitu ditu egileak. Kapitulu horietan, zehazki, euskarak Iruñean izan duen garapena aztertu du. Lehenengoak XVI, XVII eta XVIII. mendeak hartzen ditu oinarri eta Jimeno Jurio aurreratu duenez, «oso esanguratsua izanen da».

Azkeneko bi kapituluetan, berriz, 1975. urtetik orain arteko epea aztertu du Jimeno Jurio. Epe honetan Iruñeak izan duen garapen urbanistikoa eta ikastolen fenomenoa aztertu ditu besteak beste.

*Historia de Pamplona* liburuaren berrargitalpeneko kapitulu berrietan bezala, euskararen historia da Jimeno Jurioren azken lanaren ardatza. «Zorionez, harritu ere egin nauten dokumentazio eta informazio iturriak aurkitu ditut», azpimarratu du. X

riok Artaxona bere herriari buruz egindako ikerketa lanak argitaratu dituzte. *Datos para la etnografía de Artajona* eta *Estudio del grupo doméstico de Artajona* dira lan horien bi adibide. Beste hainbat artean, Donejakue bidea ere bereziki aztertu du Jimeno Jurio.

«Bidea zabaldu du Jimeno

Juriok» • Nafarroako Gobernuak eskatuta, Nafarroako toponimia jasotzen ari den lan taldeko koordinatzailea da Mikel Belasko eta berarekin mintzatu gara Jimeno Juriok alor honetan egin duen lanaz. «Toponimiaren bide zientifikoa zabaldu du. Honekin batera, dokumentazio zaharra-

*Jimeno Jurio: «Zorionez, harritu ere egin nauten dokumentazio eta informazio iturriak aurkitu ditut»*

*Mikel Belasko: «Jimeno Juriok bere inguruan jendea biltzea lortu du, eta horrela abiatu da Nafarroan toponimiaz egin den guztia»*

ren garrantziaz jabetu eta toponimoak ahozkatzeko jendeak duen modua ere aztertu du», azpimarratu du Belaskok. Bere ustez, gainera, bere inguruan jendea biltzea lortu du eta «horrela abiatu da toponimiaz Nafarroan egin den guztia». Mikel Belaskok, halaber, Jimeno Juriok toponimiaren alorrean Euskal Herri osoan jarraitzen duten metodologia finkatu zuela nabarmendu du. Esparru horretan, Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* argitalpenan Iruñerriko eta Iruñeko toponimiari buruz, besteak beste, argitaratu dituen lanak azpimarratu ditu Belaskok.

Iosu Txueka Euskal Herriko Unibertsitateko historia irakaslea, bestalde, historiaren alorrean Jimeno Juriok egindako lanaz mintzatu da EGUNKARIAREKIN. «Azpimarragarria bere lanaren aniztasuna da, alor ezberdinak jorratu ditu eta modu egokian guztiak. Bere liburu eta artikuluen kopurua, gainera, nabarmena da». Txuekak, halaber, Jimeno Juriok 1967. urtean kaleratu zuen *Navarra nunca dijo no al estatuto vasco* liburu nabarmendu du: «ikuspegi esanguratsua eskaintzen du bertan, ezberdina».

«Jimeno Jurio, berez, historialaria ez dela azpimarratu behar da ere» gaineratu du Iosu Txuekak. Izan ere, Nafarroako Unibertsitatean historia ikasketak egingen saiatu zen, jada artikulua ugari argitaratuta zituekan, baina Unibertsitateko arduradunek sarrera ukatu zioten. «Beraz, nahiz eta esparru akademikoetatik kanpo izan, historiaren alorrean burutu duen lana oso duina eta ona izan da. Bere burua osatu du Juriok». X

\* ◆ Juan Ustaroz ◆ CBNko entrenatzaile eta lehendakaria

# «Bideragarritasun plana oso gogorra da»

**J**uan Ustarozek gose greba mugagabea hasi zuen hil honen lehen taldeak bizi duen «egoera ekonomiko latza ezagutarazi eta Administrazioaren axolagabekeria salatze» asmoz. Administrazioarekin aurrekordioa lortu eta bere asmoa biharamunean bertan behera utzi zuen. CBNren etorkizuna, hala ere, argitzeke dago oraindik.

Edurne Elizondo / Iruñea

BERE TALDEAREN eta kirol munduan emakumezkoek osatutako beste hainbat talderen arazoa dena —babeslerik ez aurkitzea, alegia—, gose grebaren bidez mahai gainean jarri du Juan Ustarozek. 25 milioiko defizita du CBNk eta Europan egoiteko maila badu ere, bertara joan ahal izateko dirua falta zaio. Taldearen egoerari buruz mintzatu gara bere lehendakari eta entrenatzailearekin.

■ Zure taldearen egoera eta Nafarroako Gobernuaren ardura eza salatzeke gose greba egitea erabaki zenuen orain bi aste. Zaila izan al zen muturreko erabaki hori hartzea zuretzat?

Aste anitz eman ditut gose greba egin ala ez pentsatzen. Bakarrik egin behar izan dut gogoeta gainera, beste norbaitekin hitz eginez gero, nire asmoa bertan behera uzteko konbentziturik ninduela banekien eta. Hasieratik argi izan dut hartutako erabakia oso larria zela, baina CBNren egoerak ez zuen beste irtenbiderik uzten. Oso burugogorra naiz, baina, eta arazoa konpondu edo nire gorputzak iraun arte aurrera jarraitzeko prest nengoen. Egia erran, erantzuna hain azkar ja-



Ustarozen taldeak 10 urte beteko ditu datorren urtean.

JOXE LACALLE

sotzeak ni neu ere harritu egin nau.

■ Gose greba hasi eta biharamunean Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuko zuzendaria den Vicente Riparekin bilera izan zenuen. Azkenik, bi urterako bideragarritasun plana egitea erabaki du Gobernuak. Zertan daude egun zuen arteko negoziazioak?

Nire ustez, lehenik eta behin, bideragarritasun plana oso gogorra da, baina gure taldearen egoera benetan tamalgarrria denez, nola edo hala konpontzen saiatu behar dugu. Gobernuaren bideragarritasun planaren arabera, abenduaren 20a baino lehen babeslea lortu behar du CBNk eta hori azken zortzi urteotan lortu ez duen gauza da, nahiz eta gogor ahalegindu den. Nire asmoa, orain, Vicente Riparekin berriro elkartzeko da eta egoera

apur bat lasaitu dela kontuan hartuz, arazoa eztabaidatu ahal izanen dugula uste dut. Argi geratu behar dena, arazoa oso larria dela da. Ni behar dena egiteko prest nago, baita mailari uko egiteko ere. Nafarroako Gobernuarekin lortutako akordioaren arabera, hain zuzen, nahiz eta errealtetik urrun egon, 1996-1997 denboraldirako 15 milioiko aurrekontua onartu dut. Horrek, noski, mailari uko egin beharko diogula erran nahi du. Gehien kezkatzen nauena, hala ere, CBNrekin eta CBNren alde urte askotan zehar lan egin duen lagun taldearen egoera da eta hori, nola edo hala, konpondu nahi dut.

■ CBNren egoera gaur egun oraindik emakumezko kirol taldeek bizi duten egoeraren adierazgarri dela uste duzu? Bai, noski. Askok eta askok berdintasuna ahotan etengabe ibiltzen duten hitza bada ere, bizitza honetako beste hainbat ataletan bezala, kirolan ere gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna oso urrun dago oraindik.

Europako epai batek emakumearen aldeko diskriminazio positiboa gaitzetsi badu, zer ez da gertatuko kirol munduan? Bestalde, ikusi ahal izan dugunez, kirol baten garrantzia komunikabideetan duen oihartzunaren arabera nuertzen da gaur egun eta emakumezkoen artean kirolik hedatuena saskibaloia bada ere, telebistan, urtean zehar, bizpahiru partidu baino ez dituzte botatzen. Lotsagarria da.

■ Zortzi urtetan bilatu ondoren babeslerik ez duzue aurkitu oraindik. CBNk, ordea, Oho-rezko Mailan jokatzeko gain, Europako lehiaketetan ere parte hartu du. Zergatik da hain zaila babeslea aurkitzea?

Nik, egia erran, ez dut ulertzen. CBN dagoen lekuan badago, bertara ailegatzeko borrokatu delako izan da. Egin duen ahaleginari esker, oso emaitza onak lortu ditu azken urteotan, beraz, nire ustez, ederk frogatu du zer egiteko gai den. Ulertezina da, baina hori guztia kontuan hartuta ere, ez dugu oraindik babeslerik aurkitu.

■ Europan jarraitzeko dirurik ez eta hil honen lehen Sporitelnaren aurka jokatu zenuten partidua galduko zenuela iragarri zenuen aurreko egunean. Nola bizi dute CBNko jokalariek egoera hau guztia?

Beraientzat, noski, egoera guztiz arraroa da. Ez daude ongi eta hori zelaietan ere igartzen da. Sporitelnaren aurkako partidua galdu behar genuela erran nuen hori gure irtenbide bakarra zelako, ez baikenuen aurrera jarraitzeko dirurik. Nik, hala ere, argi erran nien ahalik eta hoberen jokatu behar zutela eta ni arduratuko nintzelá gaitzeaz. Baina egoera honek eragina izan zuen jokariengan eta gaizki jokatu zuten. Ez da erraza beraientzat, ez da batera erraza. Gure arazoa laster konpontzea espero dut. Gose grebaren bidez, egia erran, gure egoera zein den ezagutarazi dugu eta nire ustez, jendea sentibiltzatu dugu. Enpresari txiki askok, hain zuzen, dirulaguntzak bidali dizkigute eta gure zorra oso handia bada ere, eskertzekoa da egiten ari direna.

s o s l a i a

Juan Ustarozen ibilbidea saskibaloiren munduan ez zen CBNrekin hasi. Jokalari izan zen hasieran, ikastetxean lehendabizi eta Club Natacion eta Calasancio taldeetan geroxeago. Meniskoan min hartu eta utzi behar izan zuen, ordea, hemeretzi urte zituela.

Saskibaloia jokalaritza izatea, hala ere, ez zen Juan Ustarozek gustuko zuena eta berehala konturatu zen entrenatzaile izan nahi zuela. Hamahiru urte zituela entrenatu zuen CBNko lehendakari eta entrenatzaileak bere lehen taldea. Bere ikastetxe taldea entrenatzea izan zen bere lehen ardurak.

Orain dela hamahiru urte, Txantreako Kirol eta Kultur Elkartetik deitu eta bertako emakumezko saskibaloia talde gaztea entrenatzen hasi zen Juan Ustaroz. Txantreako taldea Lehen Maila B-ra iritsi zenean elkarrekin bere ardurari uko egin zion eta honela sortu zen Nafarroako Saskibaloia Taldea (CBN). Datorren urteko urriaren 2an, ha-mar urte beteko ditu CBNk.

«Ohorezko Mailan eta Europan ere jokatu arren, ez dugu oraindik babeslerik aurkitu. Sinestezina da»

P A N E  
LUCRANDO

ZALDI ERDA

